

4.4. Metodologia

4.4.1. Proiektuak eta ekintzak /emaitzak

4.4.1.1. Proiektuak

4.4.1.1.1. Taldekako proiektuak eta proiektu komunitarioak

- Taldekako proiektuak (berezko eskaintza)

Hainbat jarduera dira –informazio, aisialdi eta astialdi, lan aurreko jarduerak, e. a.–, beti ere arrisku egoeran dauden adingabe edo gazte taldeei begira, nahiz eta taldea arrisku egoeran ez dauden adingabe eta gazteek ere osatu. Banakako hezkuntzako proiektuei loturik egoten dira beti.

Banakako hezkuntzako proiektuetan edo taldekako proiektuetan dauden adingabe edo gazteek, denbora pasa ahala, igarotzeko proiektuetan parte hartu beharko lukete.

Gerta daiteke arrisku ertain-altu edo moldagabezia egoeran dauden gazteek zenbait talde proiektutan parte hartzea, baina oraindik banakako hezkuntzako proiekturik ez izatea.

Era berean gerta daiteke, zailagoa izan arren, adingabe edo gazte horiek igarotzeko proiektuetan parte hartzea, baina haiekin banakako hezkuntzako eskuartze trinkorik egin ez izana (banakako hezkuntzako proiektua).

Nolanahi ere, taldeka esku hartzen duten adingabe edo gazteetakoren batek arrisku ertain-altu edo moldagabezia egoeran egon behar du, eta banakako hezkuntzako proiektua eduki behar du une horretan edo zertxobait aurrerago.

Gehienetan, taldekako proiektuek adingabe edo gazteak normalizatutako baliabide eta zerbitzuetan txertatzea dute helburu, gero igarotzeko proiektuetan sartzeko. Beste irtenbide bat gazteek beraiek autogestionatutako proiektuak egitea da.

Taldeka esku hartzearen arrazoia adingabe/gazte bakoitzaren gizartekotze prozesuan kidekoen taldeak duen eraginean –baikor edo ezkorrean– datza (bigarren mailako gizartekotzea).

Kidekoen taldea edozein aurrenerabe eta neraberen kasuan gizartekotzeko eragile bereziki garrantzitsua da, eta are garrantzitsuagoa arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteen kasuan, beste gizartekotze ahalegin batzuek porrot egin baitute.

Bestalde, taldeka esku hartzeak garrantzi berezia dauka adingabe eta gazteak hainbat alderditan hezteko orduan; hala nola, parte hartzea, herritartasuna, taldeko ahalegina, talderen baten parte izatearen sentimendua, kritikotasuna, nork bere aisialdia antolatzea, eta, aurrerago, autolanbideko ekimenak, e. a.

Ez baita ahaztu behar, adingabe eta gazte horiek esku hartzean, elkarrekin bizi dituztela baztertze edo desabantaila egoerak, eta egoera horiei taldeko erantzunak eman diezazkieketela adingabe eta gazteok. Kontua ez da banakako irtenbideak soilik aurkitzen saiatzea.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Hala eta guztiz ere, hezkuntzako eskuartzearen indibidualizazioa eta pertsonalizazioa funtsezkoa da, eta taldeka esku hartzen denean ere zaindu egingo da. Bestalde, taldeka esku hartzeak ezin izango du banaka esku hartzea ordezkatu, eta taldekako eskuartzea banakako eskuartzeari loturik egongo da beti.

Eskuartzearen hartzailea den adingabe edo gazte bakoitzaren premiak abiapuntua dira taldeka esku hartzeko. Banakako hezkuntzako proiektuan ari den –edo aurreikusitakoaren arabera ari izango den– adingabe edo gazteak parte hartzen ez badu, ez da taldekako eskuartzerik justifikatzen.

Era berean, ez da justifikatzen ekintzen berezko eskaintza egonkorra ere (talde berarekin). Beti bultzatu behar da beste baliabide batera igarotzea, beste figura profesional batzuek edo boluntarioek sortutako baliabidea kudeatzea edo autogestionatzea.

Aisialdi eta astialdiaren berezko eskaintza, edo eskaintza soziokulturala, e. a., aldi baterako izango da –adingabe edo gazte talde bakoitzarentzat–, eta adingabe eta gazteak normalizatutako eskaintzetan sartzeko helburu duen estrategiak justifikatu beharko du; adingabe eta gazteen jarrerak eta defizitak landu eta eskaintza egokituak sustatu beharko dira.

Hedadura eta trinkotasuna ezartzeari dagokionez egokitzat hartzen dugu, hezitzaile bakoitzeko 2 taldekako proiektuko ratioa, aldi berean eta egun erdiz arituz.

- Proiektu komunitarioak (igarotzeko eta sentsibilizatzeko proiektuak)

Kaleko hezitzaileek egin beharreko komunitateko eskuartzeak hurrengo puntuak ditu:

a) Lehendik dauden normalizatutako baliabideak egokitzea, edo baliabide normalizatu eta egokituak sortzea; horrek, beste alderdi batzuen artean, hauxe dakar berekin: gizarte eta astialdiko boluntarioak sustatzea (egokitzera bideratutako prestakuntza espezifikoak, ...), hezkuntzako eta kulturako ekintzak kalean bultzatzea, e. a. Baliabideak egokitzea edo egokitutako baliabideak sortzea arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteak baliabideetara igarotzeko proiektuen barruan sartzen da beti.

b) Komunitatea orokorrean, edo bereziki zenbait azpitalde sentsibilizatzeko proiektuak garatzea; adibidez, bizilagun eta herritarrekin era informalean esku hartzea kalean, gatazketan bitartekoak izan daitezen, edo arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin harreman baikorra izan dezaten.

- Igarotzeko proiektuak

Azaldu berri dugunez, taldekako proiektuen helburu nagusia ez da beti adingabe eta gazteak normalizatutako eta egokitutako baliabideetan txertatzea. Izan ere, taldekako proiektuak egon daitezke, baliabideekin (sortzea edo egokitzea) lanik egin gabe.

Baliabideekin lan egiten den guztietan, ordea, lan horren atzean taldekako proiekturen batek egon behar du.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Baliabideetara (sortzea edo egokitzea) bideratutako eskuartzeak helburu izango du, beti, arrisku zehatzaren egoeran dauden adingabe edo gazte taldeak baliabideetan txertatzea; kaleko hezitzaileak harremanetan sartuak izango dira, alde zuzenetik, taldearekin. Beraz, arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteak normalizatutako baliabideetara igarotzeko proiektuen barruan egongo dira.

Esku hartuko da, hortaz, beste zerbitzu batzuetako eragile, boluntario edo profesionalarekin koordinatuta.

Baliabideak sortzeko proiektuen aldagarri bat gazteek (16 urtetik gora) autogestionatutako proiektuak sustatzea da. Kasu horietan ere, zerbitzu sistemetako eskuartze normalizatuen barruan kokatu behar da autogestionatutako proiektua.

Programa gauzatzeko garrantzizkoa da kaleko hezitzaileek garatzen dituzten ekintzak/proiektuak/baliabideak baliabide eta sistema komunitarioetara transferitzea. Adibide bat izan daiteke kirol jarduerak egitea: taldeen artean lehiaketatik kanpo dauden txapelketak bultzatzea; talde horiek arrisku egoeran dauden edo ez dauden adingabe edo gazteek osatuko dituzte, eta, geroago, boluntarioei edo gazteei emango zaie taldeak antolatzeko ardura (autogestionatzea).

Baliabideak egokitzeko proiektuek baliabideekin lan egitea eskatzen dute horien egokitzapena errazteko; eta, halaber, baliabideek neurri horiek onartzeko joera izatea, arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteak bertan txerta daitezen.

Proiektu guzti horiek "igarotzeko proiektuak" izendatu ditugu.

Programak lehentasuna ematen dio lehendik zeuden baliabideak egokitzeari, eta ez baliabideak sortzeari, eskaintzarik ez dagoenean, eskasa denean edo geografikoki gaizki sakabanatuta dagoenean salbu. Programak, gainera, normalizatutako eta egokitutako baliabideen eskaintza garatzea beste zerbitzu sistemekin batera duen erantzukizuna dela uste du (hezkuntza, kultura, osasun, eta bestelako zerbitzu sistemak).

Horrela bada, kaleko hezitzaileek baliabide jakin bati ekin baino lehen, egokia den zerbitzu sistemari azaldu behar dio baliabidea sortu nahi duela.

Litekeena da hezitzaileek baliabideren bat sortzeari ekitea, baina ardura duen zerbitzu sistemaren finantzaketa izan behar du, eta kudeaketa beste hezkuntzako eragileei ematea (gizarte edo astialdiko boluntarioak, zerbitzu sistemako profesionalak, e. a.) aurreikusi behar du.

Edonola ere, ardura duen zerbitzuak sortutako baliabidearen finantzaketa eta kudeaketa hasieratik edo geroago bere gain hartzen badu ere, kaleko hezitzaileen gain geratuko dira laguntza teknikoak eta, orokorrean, egokitutako sortze prozesuan edo baliabidea egokitzean behar diren laguntzak.

Boluntarioak alderdi espezifikotik trebatzea (baliabideak egokitzea, arrisku egoeran dauden adingabeak, e. a.), eta baliabideen egokitzapena errazteko haiekin lan egitea proiektu mota horien barruan daude. Salbuespen gisa, kultur sistema ordeztu daiteke, gizarte eta astialdiko boluntarioak, hasierako prestakuntza, e. a., sustatzeko eginkizunetan.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Hedadura eta trinkotasuna ezartzeari dagokionez, egokitzen jo dugu hurrengoa:

Hezitzaile bakoitzeko 2 igarotzeko proiektuko ratioa, aldi berean eta egun erdiz arituz.

- Sentsibilizatze proiektuak

Komunitateari orokorrean edo azpitalde espezifikoei zuzendurik daude.

Hedadura eta trinkotasuna ezartzeari dagokionez, egokitzen jo dugu hurrengoa:

Hezitzaile bakoitzeko sentsibilizatze proiektu bateko ratioa, aldi berean eta egun erdiz arituz.

4.4.1.1.2. Banakako hezkuntzako proiektuak

Adingabe edo gazte bakoitzari zuzenduak dira, eta adingabe edo gazteari zuzendutako helburu eta aurreikusitako ekintza indibidualizatuz garatuko dituzte soilik, dela adingabe edo gazteekin bereziki, dela (gehienetan) taldekako proiektuen barruan (adingabe/gazteak parte hartzen duen taldekako proiektuen erreferentzia banakoaren programazioaren fitxan adieraziko da).

Proiektuak bi urtean behin egiten den programazioan zehaztuko dira, eta urtean behin bitarteko ebaluaketa egingo da, edozein momentutan aurreikusi gabeko proiektuei ekitea dagoen arren.

Hedadura eta trinkotasuna ezartzeari dagokionez, egokitzen jo dugu hezitzaile bakoitzeko 6-8 banakako proiektuko ratioa, **aldi berean** eta egun erdiz arituz.

Oraingoz, ratio generikoa ezarri dugu. Hala ere, ratioak zehaztu nahi ditugu, pixkanaka, adingabe edo gazteen ezaugarrien arabera (moldagabeziako portaerak dituzten adingabe edo gazteak, arrisku altu edo ertaineko egoeran daudenak).

Ratioak erreferentziatzen hartu behar dira. Oraindik ez dugu behar adinako esperientzia, ratioak hainbat alderdi kontuan hartuta ezartzeko, hala nola, arrisku edo moldagabezia egoeraren arabera; era ezberdinetan esku hartzea eskatzen duen adingabe edo gazteen adinaren arabera; adingabe edo gaztearen bizitzan garrantzizko beste hezitzaile batzuk, egin beharreko eskuartzearen zati handiena haien gain har dezaketenak, badauden ala ez, eta abar.

Banaka esku hartzeko proiektuak arrisku ertain, arrisku altu edo moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteekin egindakoak dira; globalak dira beraz (batez ere, adingabe edo gaztearen gizarteratze arazoetan eragina duten alderdiak –hipotesiak–), eta iraunkorrak (bi ikasturte, gutxienez, irautean dute). Jakina da badagoela une puntualagoetan banaka esku hartzerik, arrisku baxuko egoerak daudenean, banakako proiektu gisa garatzeko beharrik ez dagoenean; une puntual horietako eskuartzea ebaluaketa orokorrean azalduko da.

Banakako proiektuetan parte hartzen duten adingabe eta gazte guztiak egongo dira, aldi berean, taldekako eta igarotzeko proiektuetan sartuta.

4.4.1.2. Jarduerak

Plangintzaren gutxieneko unitateak dira, eta proiektuen barruan egongo dira beti, baina bereizirik programatu eta ebalua daitezke, bi urte baino gutxiagoko epeetan.

Jardueren beste alderdi garrantzitsu bat balio anitzekoak izan daitezkeela aintzat hartzea da, jarduera bakoitzaren bitartez lortu nahi diren helburuen ikuspegitik.

Horrela, eta kirol jardueren adibidearekin jarraituz, kirol jarduerak egin daitezke adingabe edo gazteek gizarte arloko gaitasunak eskura ditzaten, edo oinarritzko arauak barnera ditzaten (jokoaren arauak, joko garbia), adingabe eta gazteak partehartzean, antolaketan eta abarretan heziak izan daitezen (kogestioa), edo prestakuntza okupazionalerako eta abarreko programei (kiroleko monitoreak, e. a.) lotu daitekeen lan aurreko edo gizarte laneko eskarmentua izan dezaten.

Proiektu motaren araberako jarduerak

Banakako proiektuak

- Harremanak inguru irekian (kaleko harremanak bultzatzea era naturalean, jolasen eta ahozko komunikazioaren bidez, jarraipena kalean, ...).
- Informazioa eta banakoaren orientazioa.
- Banakako hezkuntzako harremana (ohiturak, jarrerak, arauak, mugak, ...).
- Bitartekotza baliabideekin (irakasleak, tutoreak, ...) eta adingabe eta gazteei kudeaketetan laguntzea.
- Familiarekiko harremana (informazioa / orientazioa, negoziazioa, bitartekotza, jarraipena).
- Adingabe eta gazteen jarraipena.

Taldeko proiektuak

Taldeko elkarriketak

Taldeka esku hartzea, lagun taldeekin esku hartzea (hezkuntzako harremana, kaleko harreman informalean barruan eta jarraian azalduko ditugun jardueren bitartez).

Prestakuntzako jarduerak

- Drogamenpekotasunaren prebentzioa
- Sexu heziketa
- Osasun heziketa (orokorrean edo beste alderdi batzuk)
- Lanbide orientazioa
- Informazio/prestakuntzako beste proiektu batzuk, prestakuntzako jardueren bitartez (tailerrak, monografikoak, bideo-foroak, jolas sinbolikoak, ...).
- Eskola laguntza

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Kultura zabaltzeko eta sortzeko jarduerak

- Lurraldea, kultura, ohiturak, ekanduak, e. a. ezagutzea
- Txangoak eta bisita kulturalak
- Akanpadak
- Euskal Herriari buruzko informazioa jasotzea
- Auzoko jaietan, inauterietan, eta abarretan parte hartzea
- Haurrentzako biblioteka

Arte adierazpeneko jarduerak

- Antzezte arteak (antzerkia, mimoa, txotxongiloak, ...)
- Dantza
- Musika, musika tresnen tailerrak, karaokea
- Hizkuntza eta literatura (aldizkariak egitea, irakurtzea bultzatzea, e. a.)
- Lengoia berriak (argazkilaritza, irratiko astea, bideoa, ikus-entzunezko bitarteak, e. a.)
- Tailerrak (txalaparta, elastikoak tindatzea, eskumuturrekoak, graffitiak, eskulanak, buztingintza, pintura, collage, horma-irudiak margotzea, larrugintza, buruhandiak, tatuaiak, globo amerikarrak, makillajea, serigrafia, trikimakoak,...).
- Ipuinak
- Espresioa
- Adingabe eta gazteek egindako lanen erakusketak

Jolas jarduerak⁶

- Taldea ezagutzeko eta talde harremanak bultzatzeko jolasak
- Gorputz jolasak, dramatikoak, plastikoak, hizkuntz jokoak, mahai jokoak, ping pong, partxisa, xakea, kartak, mahai futbola, dardoak, dama jokoa, malagar jokoak, ginkanak, rol jokoak,...
- Afariak, jaiak, urtebetetze festak, meriendak
- Filmak botatzea
- Elkarrekin bizitzea, txangoak, aste bukaerako irteerak
- Bidaia
- Kaleko jokoak

Udalekuak, kanpamentuak, trukeak

- Udalekuak, kanpamentuak
- Astebeteko elkarbizitza
- Trukeak

⁶ Jolas jarduerak eta kultura zabaltzekoak ohikoagoak izaten dira oporraldietan; badira hainbat jarduera egiteko asteak edo programa bereziak Eguberrietan, udaberrian, Aste Santuan, udaran, e. a.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Ingurugiroko jarduerak

- Zuhaitzaren Eguna ospatzea
- Ingurugiroko eskolak, baserri eskolak bisitatzea
- Biziraupen ibilbideak
- Zaborra jasotzea, ingurunea garbitzea
- Habia egiteko kaxak
- Ibaiak (ibai ibilguak)

Belaunaldien arteko jarduerak

- Guraso/semi-alaben arteko txapelketak
- Bilobaren eguna (antzerkia, txokolate jatea, erretiratuen korua, e. a.).

Tailerrak

- Txirringa tailerra
- Lokalak egokitzea
- Etxeko lanak
- Sukaldaritza
- Internet
- Bideoa
- Tresna elektronikoak konpontzea

Kirol jarduerak

- Txapelketak
- Kirol anitzeko astea
- Ibilaldiak, martxak, irteerak, senderismoa
- Igeriketa, igerilekua
- Eskalada
- Arroilak jaistea
- Karabina pneumatikoz tiratzea
- Arkuz tiratzea
- Izotz gaineko patinajea
- Ibilbideak zaldi gainean
- Ibilbideak mendiko bizikletaz
- Arrantza
- Urpekaritza
- Kirol jokoak
- Futbola
- Saskibaloia
- Beisbola
- Futbitoa
- Squasha
- Badminton
- Hondartzako Boley-a

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Surfa
- Esgrima
- Frontoia, frontenisa
- Esku pilota
- Zesta punta
- Defentsa pertsonala
- Patinak
- Zaldiketa
- Arraunketa
- Golfa
- Piraguismoa

Proiektu komunitarioak

Igarotzeko proiektuak

Taldekako proiektuen barruan aipatu ditugun jardueraz gain, hurrengoak:

- Astialdiko taldeak egokitzea
- Kirol taldeak egokitzea
- Ludotekak egokitzea
- Astialdiko talde egokituak sortzea
- Kirol talde egokituak sortzea
- Ludoteka egokituak sortzea
- Espresio taldeak sortzea
- Eskolaz kanpoko jarduera egokituetoako programak
- Eskola laguntza edo autolaguntzako programak
- Lan aurreko proiektuak (lokalak egokitzea eta margotzea, eguberrietako argiak muntatzea, industri aretoak garbitzea, ingurune naturalak garbitzea, ilea apaintzeko tailerra, eraikinak birgaitzea, higatutako mendi hegiak birlandatzea, parkeak berritzea, sukaldaritza,...)
- Gizarte eta astialdiko boluntarioei prestakuntza espezifikoa ematea
- Autogestio edo kogestio proiektuak (lokaletako, eskolaz kanpoko laguntzako, e. a.)
- Elkartasun brigadetan parte hartzea –uholdeetan, e. a.-
- Bilerak eta talde topaketetan parte hartzea (astialdiko taldeak, e. a.)
- Gizarte mugimenduetako ekintzetan parte hartzea
- Maila lokaleko baliabideekin batera, koordinazio mahainguruetan parte hartzea
- Proiektuak eskolako sistemarekin batera ("ikasteko komunitateak", e. a.)

Sentsibilizatze proiektuak

- Jardunaldiak, mintzaldiak, hitzaldiak
- Sentsibilizatze kanpaina (adibidez, arkitekturaren mugei buruz: argazki txapelketa, erakusketa, e. a.)

4.4.2. Teknikak eta hezkuntza estiloa (pedagogia)

Hezkuntzako harremana eta esku hartzeko teknikak

Kaleko hezitzaileek teknika kopuru handia erabiltzen dute haien lana egiteko, baina heziketa lana teknika sorta bat erabiltzea baino zabalagoa da. Teknikak eta jarduerak hezkuntzako harremanaren euskarria besterik ez dira; harreman hori adingabe eta gazteengan aldaketa nabarmenak sortzeko gai den tresna bakarra da.

Teknikak

Premiak eta baliabideak ebaluatzeko teknikak

- Behaketa, laneko egunkaria
- Zentsu analisia
- Galdeketak
- Elkarriketak
- Adostasunaren bitartez, premiak zehazteko teknikak: Delphi taulak, brainstorming, brainwriting, talde nominalen teknika, e. a.
- Baliabideen inbentarioa
- Zerbitzuen erabileraren analisiak
- eta abar

Esku hartzeko teknikak

- Elkarriketa
- Orientazio eta tutoretza teknikak
- Portaera aldatzeko teknikak (moldatzea eta errefortzua)
- Gizarte trebetasunetan entrenatzeko teknikak
- Talde dinamikako teknikak
- Kirol diziplinak
- Espresio teknikak
- Animazio teknikak
- Arte plastikoak
- Antzerkia
- Sorkuntza teknikak
- Ikus-entzunezko bitartekoak
- eta abar

Hezkuntza estiloa

Bultzatu nahi dugun hezkuntza estiloaren ezaugarri nagusietako batzuk hurrengoak dira:

- Parte hartzea, kogestioa eta autogestioa
- Hezitzailearen inplikazioa eta distantzia, kongruentzia, enpatia

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Esku hartzea indibidualizatzea eta gizarteratzeko bideak askotariko bilakatzea, bereziki nerabezarotik aurrera
- Adingabeak bere hezkuntzako proiektuan erantzukizuna izatea eta parte hartzea
- Mugak adierazteko argitasuna eta gatazka egoerei irtenbidea emateko erabakitasuna
- Biktima ez bihurtzea
- Kontzientziatzea eta gaitasun kritikoa bultzatzea
- Konfidentzialtasuna, sekretu profesionala

Hezkuntza eta animazioko teknikak erabiltzea ezaugarri zehatz batzuk dituen pedagogiaren barruan sar daiteke: parte hartzea du oinarri, eta, bakoitzaren prozesuak eta gizarte prozesuak orientatzeko orduan, garrantzi handia ematen die kontzientzia hartzeari, kontzientzia kritikoa garatzeari, eta adingabe, gazte eta familiez gain –banako eta talde mailan- hezkuntzako eragileek ere protagonismoa berreskuratzeari.

Ezaugarriok dituen pedagogia aurrera eramateak eskatzen du hezitzaileak mugak jartzeko gauza izatea, heziketan distantzia mantentzeko eta eskuordetzeko (kogestionatu eta gestioa transferitu). Hezitzaileek, aldi berean, ezberdintasuna errespetatu eta bultzatu behar dute; adingabe, gazte eta familien prozesuan konprometitu behar du, horiek bizi duten egoeraren zergatietan sakonduta; eta bakoitzaren prozesuak eta taldeko prozesuak orientatu behar ditu.

Pedagogia horren oinarri diren gizartekotzea eta hezkuntzaren gizarte funtzioa azaldu ditugu jadanik, Kontsortzioak heziketa konpentsatoriorako bultzatutako ekintzen oinarrian dagoen gizarte ekintzaren ereduaz hitz egitean.